

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

4882

EBAZPENA, 2024ko urriaren 10ekoa, Joko eta Ikuskizunen zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen baitira joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko irabazi asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko Balorazio Batzordeko kideak.

Aztertu dugu Segurtasuneko sailburuaren 2024ko uztailaren 11ko Agindua, zeinen bidez arautzen baita joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko Euskadin irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko modua (2024ko uztailaren 23ko EHAA, 144. zenbakia).

Agindu horren 10.2 artikulua xedatzen duenez, aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko Balorazio Batzordea sortuko da, eta Joko eta Ikuskizun zuzendariak izendatuko ditu batzordekideak, ebazpen bidez.

Ondorioz, hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena egin eta egingo duten Balorazio Batzordeko kideak izendatzea.

Lehendakaria: Aitor Uriarte Unzalu, Joko eta Ikuskizunen zuzendaria.

Kideak:

- Pablo Casado Pascual, Joko eta Ikuskizunen Arabako Lurralde Bulegoko arduraduna.
- Jon Agirre Garai, Joko eta Ikuskizunen Bizkaiko Lurralde Bulegoko arduraduna.
- Joseba Dorronsoro Goikoetxea, Joko eta Ikuskizunen Gipuzkoako Lurralde Bulegoko ordezkari arduraduna.
- Begoña Calderón Martínez, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako teknikaria.

Idazkaria: Beatriz Anitua Zabaleta, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako teknikaria.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, guztiek horren berri izan dezaten.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Segurtasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 10a.

Joko eta Ikuskizunen zuzendaria,
AITOR MIKEL URIARTE UNZALU.